

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak gomendatzen du prezioak eta itzultze-politikak konparatzea prezio berezien egunetan

Kontsumoak dio promozioak erosketak aurreratzeko aukera ona izan daitezkeela, baina gehigi erostea saihestea iradoki du

Osteguna, 2018.eko azaroak 22

Prezioak konparatzea, itzultzeko aldiak ziurtatzea edo etiketak hasierako prezioa eta jaitsitakoa adierazten dituela egiaztatzea, Ekonomia Garapenerako Departamentuko Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak eman dituen aholkuenetariko batzuk dira. Aipatutako gomendioak zabaldu ditu etorriko diren eta prezio eta bezeroentzako egoera bereziak iragarri dituen merkataritza promozioak hasi eta egun batzuk lehenago.

Black Friday, Cyber Monday, Días de oro, Special Prices...bezalako promozio erakargarrien aurrean, Kontsumoak azpimarratu du komenigarria dela erosi baino lehen gogoeta bat egitea, ea erosketak aurreratzeko aukera ona edo gehiegi erosteko erabaki txarra den ala ez ikusteko.

Horrela, hainbat aholku eskaini nahi izan du, iragarritako eskaintzei ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Aukera paregabeak behin eta berriro errepikatzen badira, orduan ez dira bizitzan izango diren bakarrak.

Promozioak dagoeneko programatutako eta derrigorrezkoak diren erosketak aurreratzeko aukera ona izan daitezke, esaterako, Gabonetakoak edo urtebetetzekoak.

Produktuetako "irteerako" prezioak zaintzea eta egiaztatzea. Zenbait dendatan prezioak aurretik puztu eta hustu egiten dituzte ondoren, promozioaren plantak egiten. Komenigarria da, gure kasuan hura gertatzen ari ez dela egiaztatzea.

Prezioak konparatzea oso baliagarria da. Hura egiteko zenbait erreminta erabilgarri dago, besteak beste, bilatzaileetatik eskura ditugun konparaziozko web orriak.

Komenigarria da itzultzeko politika eta horiek egiteko epeak egiaztatzea.

Behar duzuna bakarrik erostea. Nahi ez dituzun artikuluak euren prezioengatik bakarrik erostea ez da pagotzarik.

Teknologia erosterakoan zaharkitzeari erreparatu behar zaio eta ez bakarrik prezioari. Mugikorrek, ordenagailuak, telebistak eta bestelako produktu elektronikoak erosteko informazioa eta irizpideak hartu behar ditugu oinarri. Ziurtatu behar dugu ea produktu horiek software eguneraketak onartuko dituzte, markak modeloari euskarria ematen

jarraituko duen, RAM memoria nahikoa den edo zenbat balio duten osagarriek. .

Ordinketa amaitzerakoan edo atzeratzerakoan, interesei eta epeei arretaz erreparatu behar zaie.

Gogoratu behar da kontsumitzaileak eskubideak dituela eta horiek aintzat hartu behar dira: produktuek jaitsitako prezioa eta aurrekoa erakutsi beharko dute, BEZa barne; egoera ezin hobean egon behar dira; Interneten bidezko erosketan orri seguruetan egin behar da eta 14 egun daude uko egiteko eskubidea aitortzeko, hau da, produktua justifikaziorik gabe itzultzeko.

Garrantzitsua da frogagiria edo ticketa gordetzea erreklamazioa egiteko. Erosketa berme legala bi urtekoa da produktu berrietarako eta, gutxienez, urtebetekoa, bigarren eskukoetarako.

Sor daitezkeen arazoen aurrean, hoberena da, establezimenduarekin akordio batera iristea. Hura ezinezkoa bada, erreklamazio bat aurkeztu daiteke.

Azken hura dela eta, Kontsumo Zerbitzuak gogoarazten du Kontsumo Arbitraje Sistemari atxikitako sistemetan erosteak segurtasuna bermatzen duela erosketa osteko erantzunetan, gatazkak ebazteko aukera ematen baitu doako baliabide estrajudizial baten bidez. Atxikitako establezimenduek, modu boluntarioan, bereizgarri ofiziala dute ikusgai sarreran eta barruan.